



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko apirilaren 8a

28. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Parlamentuaren 2007ko kontu orokorrari buruz aholku emateko txostena, Comptos Ganberak egina (2. or.).
- Tuterako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (6. or.).
- Lizarrako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (12. or.).
- Nafarroako Odol Bankuaren egoera aztertzeko lan-taldea. Osasun Batzordeak bazter utzia (19. or.).
- Deialdiak, hautapoben eta merezimendu-balioespenaren bidez legelarien bi zerrenda osatzekoak, bata Parlamentuko funtzionarioen prestakuntzarako eta bestea aldi baterako administrazio-kontrataziorako. Epaimahaia aldatzea (20. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuaren 2007ko kontu orokorrari buruz aholku emateko txostena, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak egindako txostena, Nafarroako Parlamentuaren 2007ko kontu orokorrari buruz aholku emateko, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Nafarroako Parlamentuaren 2007ko kontu orokorrari buruz aholku emateko txostena, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Helburua eta norainokoa (2. or.).
- II. Iritzia (2. or.).
- III. Finantzen egoera-orriak (3. or.).
 - III.1. 2007ko gastuen eta dirusarreraren aurrekontuaren likidazioa (3. or.).
 - III.2. 2007ko abenduaren 31ko egoera-balantzea (4. or.).
 - III.3. Emaizta-kontua (5. or.).

I. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2008ko otsailaren 18an hartutako erabakia betez eta

Comptos Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/2002 Foru Legean xedatuarekin bat, Nafarroako Parlamentuaren 2007ko kontu orokorreari buruzko txostena –aholku ematekoa– egin dugu.

Lanaren ardatza, egindako eskaria betez, Nafarroako Parlamentuaren 2007ko kontu orokorra arrazoizkoa ote den aztertzea izan da. Kontu orokorrak prestatzeko arduraren Parlamentuarena izan da. Finantzen egoera orrien laburpena, berriz, txosten honen III. atalean jaso dugu.

Gure azterketa egitean, inguruabarrak kontuan harturik beharrezkoak iruditu zaizkigun auditoretza-prozedurak eta -arauak aplikatu ditugu.

II. IRITZIA

Gure iritziz, kontu orokorrak behar bezala adierazten du 2007ko aurrekontuaren exekuzioa, Nafarroako Parlamentuaren 2007ko abenduaren 31ko ekonomia- eta ondare-egoera eta egun hartan bukatzen zen urteko ekitaldiari dagozkion eragiketen emaitzak ere, aplikatzekoak diren kontabilitate printzipio eta irizpideekin bat etorriz.

Parlamentuak 2007an zehar izan duen ekonomia-eta finantza-jarduera, berriz, legezotasun printzipioaren arabera izan da.

Iruñean, 2008ko uztailaren 17an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

III. FINANTZEN EGOERA-ORRIAK**III.I. 2007ko GASTUEN ETA DIRUSARREREN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA****GASTUAK, 2007**

Kapitulua	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Aurrekontu bateratua	Aitorutako betebeharrak	Betetakoa	Ordaindutakoa	Ordaintzeke dagoena	Kreditu gerakina
1. Langile-gastuak	3.945.511,00	1.003.960,00	4.949.471,00	4.364.282,52	% 88,18	4.364.282,52	0,00	585.188,48
2. Gastu arruntak ondasun eta zerbitzuetan	3.533.153,00	-382.960,00	3.150.193,00	1.930.205,81	% 61,27	1.856.434,13	73.771,68	1.219.987,19
4. Transferentzia arruntak	2.830.987,00	21.400,00	2.852.387,00	2.600.434,08	% 91,17	2.600.434,08	0,00	251.952,92
6. Inbertsio errealak	857.449,00	571.252,96	1.428.701,96	802.185,73	% 56,15	790.315,98	11.869,75	626.516,23
8. Aktibo finantzarioak	54.378,00	0,00	54.378,00	52.014,00	% 95,65	52.014,00	0,00	2.364,00
9. Pasibo finantzarioak	115.220,00	-21.000,00	94.220,00	288,48	% 0,31	288,48	0,00	93.931,52
Gastuak, guztira	11.336.698,00	1.192.652,96	12.529.350,96	9.749.410,62	% 77,81	9.663.769,19	85.641,43	2.779.940,34

DIRUSARRERAK, 2007

Kapitulua	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Aurrekontu bateratua	Aitorutako eskubideak	Betetakoa	Kobratutakoa
3. Tasak eta bestelako dirusarrerak	7.511,00	0,00	7.511,00	51.533,92	% 686,11	51.533,92
4. Transferentzia arruntak	10.272.140,00	600.000,00	10.872.140,00	10.872.140,00	% 100,00	10.872.140,00
5. Ondare-dirusarrerak	30.000,00	0,00	30.000,00	137.306,96	% 457,69	137.306,96
7. Kapital-transferentziak	995.436,00	0,00	995.436,00	995.436,00	% 100,00	995.436,00
8. Aktibo finantzarioak	31.010,00	592.652,96	623.662,96	40.783,57	% 6,54	40.783,57
9. Pasibo finantzarioak	601,00	0,00	601,00	0,00	% 0,00	0,00
Dirusarrerak, guztira	11.336.698,00	1.192.652,96	12.529.350,96	12.097.200,45	% 96,55	12.097.200,45

2007 ekitaldiko aurrekontuaren emaitza.

Kontzeptuak	Aitorturiko eskubide garbiak	Aitorturiko betebeharrak	Zenbatekoak
1. Eragiketa ez-finantzarioak (1-7 kapituluak)	12.056.416,88	9.697.108,14	2.359.308,74
2. I. Eragiketak finantza-aktiboekin (8. kapitulua)	40.783,57	52.014,00	-11.230,43
I. Ekitaldiko aurrekontuaren emaitza (1+2)	12.097.200,45	9.749.122,14	2.348.078,31
II. Finantza-pasiboen aldaketa garbia (9. kapitulua)	0,00	288,48	-288,48
III. Ekitaldiko aurrekontuaren saldoa (I+II)	12.097.200,45	9.749.410,62	2.347.789,83
1.(+) Gehitutako kredituak finantzatzeko funtsak			592.652,96
2. (-) Finantzaketako desbideraketak (deusezteak)			0,00
IV. EKITALDIKO FINANTZAKETAREN SUPERABITA EDO DEFIZITA (III+1+2)			2.940.442,79

III.2. 2007ko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZEA

AKTIBOA			
Kontzeptua	31-12-07ko balantzea	31-12-06ko balantzea	Aldaketa, ehunekotan
IBILGETU MATERIALA	25.351.465,23	24.658.512,44	%3
2020 Eraikinak eta bestekoa eraikuntzak	22.051.216,69	21.573.010,34	%2
2030 Makineria, instalazioak eta tresneria	512.872,65	492.374,56	%4
2040 Garraio elementuak	138.326,27	138.326,27	%0
2050 Altzariak eta tresneria	1.068.858,14	1.012.935,79	%6
2060 Informazioa prozesatzeko tresneria	481.652,85	411.959,17	%17
2080 Bestelako ibilgetu materiala	1.098.538,63	1.029.906,31	%7
IBILGETU EZ-MATERIALA	437.804,62	367.830,41	%19
2150 Aplikazio informatikoak	437.255,62	367.464,41	%19
2180 Bestelako ibilgetu materiala	549,00	366,00	%50
FINANTZA-IBILGETUA.	57.613,73	57.576,09	%0
2540 Epe luzeko maileguak	57.613,73	57.576,09	%0
ALDI BATERAKO INBERT. FINANTZ.	24.444,00	13.251,21	%84
5340 Epe laburreko maileguak	24.444,00	13.251,21	%84
APLIKATZEKE DAUDEN KONTUSAILAK	135,69		
5500 Aplikatzeke dauden gastuak	135,69	0,00	
ZORDUNAK	2.644,31	3.785,83	-%30
5610 Aurrekontukoak ez diren beste zordun batzuk	2.644,31	3.785,83	-%30
FINANTZA-KONTUAK	3.094.392,51	2.520.263,98	%23
5700 Kutxa	1.786,65	3.245,67	-%45
5710 Finantza-erakundeak	3.086.840,76	2.514.838,20	%23
5711 Finantza-erakundeak	5.765,10	2.180,11	%164
AKTIBOA, GUZTIRA	28.968.500,09	27.621.219,96	%5
ABALAK ETA BERMEAK	40.987,73	33.287,07	%23
0520 Harturiko abalak	40.987,73	33.287,07	%23

PASIBOA			
Kontzeptua	31-12-07ko balantzea	31-12-06ko balantzea	Aldaketa, ehunekotan
ONDAREA	25.870.113,56	25.095.667,65	%3
1000 Ondarea	19.168.828,60	18.394.382,69	%4
1070 Adskribatutako ondarea	6.701.284,96	6.701.284,96	%0
BESTELAKO FUNTS BEREKIAK	138.523,42	594.110,40	-%77
1291 Atxikitako funtsak, sartzeko daudenak	137.065,98	592.652,96	-%77
1300 Aplikatzeke dauden kontusailak	1.457,44	1.457,44	%0
EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK.	85.641,43	103.709,00	-%17
4000 Aitorturiko betebeharrak hartzekodunak, aurrekontu indardunekoak	85.641,43	89.649,80	-%4
4010 Aitorturiko betebeharrak hartzekodunak, itxitako ekitaldietakoak	0,00	14.059,20	
ZORRAK ENTITATE PUBLIKOEN	2.870.859,77	1.824.060,30	%57
4760 Foru Ogasun Publikoa, kredituen itzuketarengatik	2.803.376,81	1.778.450,73	%58
4770 Gizarte Segurantzaren hartzekoduna	67.482,96	45.609,57	%48
FIANTZAK ETA GORDAILUAK	3.361,91	3.650,39	-%8
5200 Jasotako epe laburreko fidantzak	3.361,91	3.650,39	-%8
APLIKATZEKE DAUDEN BESTE KONTUSAIL BATZUK	0,00	22,22	
5550 Aplikatzeke dauden dirusarrerak	0,00	22,22	
PASIBOA, GUZTIRA	28.968.500,09	27.621.219,96	%5
ABALAK ETA BERMEAK	40.987,73	33.287,07	%23
0570 Abal-emaileak	40.987,73	33.287,07	%23

III.3. EMAITZA-KONTUA.

2007ko emaitza

ZORRA	HARTZEKOA	
4.920.968,38 Langile-gastuak	Salmentak	2.442,95
1.373.519,95 Kanpoko lan, hornidura eta zerbitzuak	Finantza dirusarrerak	137.306,96
2.640.787,85 Transferentzia arruntak	Kapital-transferentziak	996.531,04
	Transferentzia arruntak	10.872.140,00
3.122.235,74 Aurrezkia (emaitza positiboa)	Bestelako dirusarrerak	49.090,97
12.057.511,92 Zorrak, guztira	Hartzekoa, guztira	12.057.511,92

Emaitza doituak

ZORRA	HARTZEKOA	
3.122.235,74 Ekonomia eta ondare emaitza	ONDAREA (Inbertsio garbi aktibatuak, 2007)	762.927,00
592.652,96 Atxikitako funtsak, aplikatzeke daudenak	ONDAREA (amaierako aktib-pasib aldaketa)	11.518,91
	Emaitza ekonomiko eta ondareko doituak	2.940.442,79
3.714.888,70 Zorrak, guztira	Hartzekoa, guztira	3.714.888,70

Emaitzaren banaketa.

ZORRA	HARTZEKOA	
2.940.442,79 Emaitza ekonomiko eta ondareko doituak	Foru ogasun publikoa, kreditu itzulketako hartzekoduna.	2.803.372,81
	Atxikitako funtsak, sartzeko daudenak	137.065,98
2.940.442,79 Zorrak, guztira	Hartzekoa, guztira	2.940.438,79

Tuterako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Tuterako Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Tuterako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (6. or.).
- II. Xedea (7. or.).
- III. Norainokoa (7. or.).
- IV. Iritzia (8. or.).
 - IV.1. Udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorra (8. or.).
 - IV.2. Legezketasuna (8. or.).
 - IV.3. 2006ko abenduaren 31ko finantza-egoera (8. or.).

IV.4. Aurreko txostenetan Comptos Ganberak emandako gomendioen betetzea (9. or.).

V. Iruzkina, ondorioak eta gomendioak (9. or.).

V.1. Alderdi orokorrak (9. or.).

V.2. Administrazio-kontratazioa (9. or.).

V.3. Gorabeherak (11. or.).

V.4. Hirigintza (11. or.).

V.5. Erakunde autonomoak (11. or.).

Eranskina: 2006ko finantzen egoera-orri bateratuak

(Oharra: aipaturiko eranskinak foru parlamentarien eskura daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorteko bulegoetan eta ondoko web helbidean hain zuzen:

www.cfnavarra.es/camara.comptos

I. SARRERA

Bere jarduera-programari jarraituz, Comptos Ganberak Tuterako Udalaren eta haren erakunde autonomoen –Uren Udal Batzarra eta Castel-Ruiz Kulturgunea– 2006ko Kontu Orokorraren fiskalizazioa egin du.

Tuterako Udalak 215,68 km²-ko azalera du. 32.802 biztanle ditu eta hauexek dira bertako zifra adierazgarrienak 2006ko abenduaren 31n:

Erakundea	Betebehar aitortuak	Eskubide aitortuak	Langileak, 2003-12-31n
Udala	33.588.657,47	32.518.244,63	243,5
Uren Udal Batzarra	2.727.309,20	2.843.012,56	27
Castel-Ruiz Kulturgunea	3.663.195,37	3.663.195,37	26
- Bateratzearen doitzeak	-2.869.016,70	-2.869.016,70	-
Guztizkoa, bateratua	37.110.145,34	36.155.435,86	296,5

Udalak ondoko mankomunitate eta partzuergo-etan hartzen du parte:

- Erriberako Hondakin Solidoen Mankomunitatea, zaborrak biltzeko zerbitzua ematen duena, eraikinak zaharberritzeko bulegoa eta txakurtegia.
- UHUNen Tuterako ikastetxe elkartuaren partzuergoa
- Tarazonicaren Bide Berdearen partzuergoa.
- Nafarroako Erribera garatzeko estrategietarako partzuergoa (EDER).

Tuterako Udalari 2006ko ekitaldian aplika zeki-okeen erregimen juridikoa, funtsean, hau izan da:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Araubidea gaurkotzeari buruzko urriaren 29ko 11/2004 Foru Legea.
- Toki Araubidearen oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legea.
- Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutua.
- Kontratu publikoei buruzko foru araudia.
- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.
- Lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.
- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira, zeinak Nafarroako Toki Administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.
- Tuterako Udalaren betetze-oinarriak.

Txostenak bost atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean txostenaren helburuak agertzen dira. Hirugarrenean, eginiko azterlanaren norainokoa eta, laugarrenean, Kontu Orokorrari, legezko-tasunari, finantza-egoerari eta aurreko gomendioen jarraipenari buruz dugun iritzia agertzen dugu. Bosgarren eta azken atalean, erakundearen barne-antolaketa eta –kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorio eta gomendioak biltzen dira, arloka.

Halaber, eranskin batean sartu da Udalak 2006ko ekitaldiko kontuekin eginiko oroitidazkia.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu Tuterako Udaleko eta haren menpeko erakunde autonomoetako langileei.

II. XEDEA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Tuterako Udalaren 2006ko ekitaldiko Kontu Orokorraren fiskalizazioa egin dugu.

Txostenak helburu du honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

a) Tuterako Udalaren 2006ko Kontu Orokorrak fidelki islatzen ote duen alderdirik behinenetan entitatearen finantza-egoera eta aurrekontuaren likidazioa eta lorturiko emaitzak, eta guztiok onartuak diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraituz prestatu ote den, eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

b) Aplikagarri zaion legedia zer neurritan betetzen den Tuterako Udalak eta haren menpeko erakunde autonomoek 2006an aurrera eramandako jardueran.

c) Tuterako Udalaren eta haren mendeko erakunde autonomoen 2006ko abenduaren 31ko finantza-egoera.

d) Egin zuen azken fiskalizazio-txostenean, zeina 2005eko ekitaldiari buruzkoa baita, Comptos Ganbera honek eman zituen gomendioak noraino bete diren.

Txostenarekin batera, beharrezkoak diren gomendioak eman ditugu, entitatearen kudeaketa ekonomiko-finantzarioa hobetze aldera.

III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak Tuterako Udalaren eta haren erakunde autonomoen (Castel Ruiz kultur-gunearen eta Uren Udal Batzarraren) finantzen egoera-orri bateratuen fiskalizazioa egin du; fiskalizazio horren barruan elementu hauek daude:

a. Toki-entitatearen kontua eta haren erakunde autonomoena.

b. Kontu Orokorraren eranskinak: oroitidazkia, kontu bateratua, zorraren egoera eta esku-hartze-ari buruzko txostena.

Hona hemen Udalak aurkezturiko finantzen egoera-orri nagusiak:

- Aurrekontuaren betetze-maila, ekitaldiko aurrekontuaren emaitza eta toki-entitatearen eta haren erakunde autonomoen diruzaintza-ko gerakina.
- Entitatearen eta haren erakunde autonomoen egoera-balantzea.
- Entitatearen eta haren erakunde autonomoen galera eta irabazien kontua.
- Udalaren eta haren erakunde autonomoen kontu bateratuak.

Udalak eta haren erakunde autonomoek aplikaturiko kontabilitate-araubidea 272/1998 Foru Dekretuaren bidez onetsitako kontabilitate-instrukzio orokorrean araututa dago.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta araei jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hauta-proba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika, edo kontu-sail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa.

Zehazki, Udalari eta haren erakunde autonomoei dagokienez, aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikaturiko oinarritzko prozedura administratiiboak ere; ebaluatu dira, halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrolerako alderdi nabarmenak.

Txosten honetan daude Udalaren eta haren mendeko erakundearen antolamendua eta barne-kontrola hobetzeko komenigarritzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak.

IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Tuterako Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2006ko ekitaldiko Kontu Orokorra aztertu dugu. Udalaren erantzukizuna da kontuaren prestaketa eta edukia.

Egindako berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau adierazi behar dugu:

IV.1. UDALAREN 2006ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA

- Kontu Orokorra ez du jasotzen funtzionarioen pentsio-sistematik ondorioztatutako betebeharrak aktuariaren kuantifikazioa.

Aipatu salbuespena alde batera utzita, Udalaren 2006ko ekitaldiko Kontu Orokorra fidelki jasotzen ditu alderdirik behinenetan gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta eginiko eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko informazio beharrezkoa eta nahikoa du, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta guztiok onartuak diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraituz.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke 2006an Udalaren eta haren erakunde autonomoen jardura ekonomiko eta finantzarioa oro har legezkontasun-printzipioari jarraituz egiten dela.

IV.3. 2006ko ABENDUAREN 31ko FINANTZA-EGOERA

Behin betiko aurrekontu bateratua 81.913.978,03 eurokoa dela (56.056.636,66 euro aurreko ekitaldian), gauzatutako gastuaren zenbatekoa 37.110.145 eurokoa da (35.217.250 euro 2005eko ekitaldian) eta diru-sarrerena 36.155.436 eurokoa (37.373.142 euro 2005ean).

Azpitarratzekoa da gastuen betetze-maila apala (ehuneko 45), bai eta diru-sarrerena ere (ehuneko 44). Izan ere, 2005eko ekitaldian, zifra horiek ehuneko 63 eta ehuneko 67 izan ziren, hurrenez hurren. Horren arrazoia, funtsean, inbertsioen gauzatze txikia izan da.

2006ko ekitaldian transferentziek Udalaren diru-sarreraren ehuneko 40 egin dute, eta zergek eta tasek ehuneko 54. Zerga zuzenetan, ehuneko 95 betetzen da; zeharkakoetan, ehuneko 74. Bestalde, transferentzia arrunten ehuneko 80 bete da, eta kapital-transferentzien ehuneko 42.

Ekitaldia ixtean aurrekontuko emaitza doituak 2.751.047 eurokoa izan zen (1.801.086 euroko superabita 2005ean).

Ekitaldi honetan, zorpetzea 14.602.328 eurokoa izan da (aurreko ekitaldian 15.715.342 eurokoa izan zen), eta 307.338 euroko beste mailegu bat hitzartu da. Gainera, 29,3 milioi euroren maileguak hitzartzeko daude.

Ekitaldia amaitzean, zorpetze-maila ehuneko 5,2koa izatea da finantza-egoeraren ezaugarria; hortaz, zorpetze-mugatik urrun dago, ehuneko 14,5ekoa baita. Aurrezki garbia ehuneko 9,3koa da, eta diruzaintzako gerakin bateratua 236.200 eurokoa.

Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakin bateratua 2.829.564 euroko negatiboa izan da (628.986 euroko negatiboa 2005eko ekitaldian); Udalarena 3.935.116 euroko negatiboa izan da, eta erakunde autonomoenak positiboak izan dira.

2006ko kontuak itxi ondoren, 2007an, administrazioarekiko auzi-jurisdikzioan erabakitzeaz zegoen auzia ebatzi da, eta Udalak 2005eko lehen seihilekoari dagozkion hiri-lurraren kontribuzioari lotutako diru-sarrerak itzuli beharko ditu, berandutzagatiko interesez gain. Itzuli behar den zenbatekoa 1,4 milioi euro ingurukoa da, eta itzultze horrek eragina izanen du udal-diruzaintzaren egoeran.

IV.4. AURREKO TXOSTENETAN COMPTOS GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA.

Ganbera honen aurreko txostenari dagokionez, gomendio nagusiak bete egin dira, baina hurrengo hau oraindik bete gabe dago:

Aurrekontuan inbertsioetarako jasotzen diren zenbatekoak kudeaketa-ahalmen errealetara doitu eta hurbiltzea, kreditu-gerakinetako saldo handiak hurrengo ekitaldietako aurrekontuetara ez gehitzearren.

V. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondotik, kudeaketaren arlo aipagarrien arabera sailkaturretik, Ganberaren iritziz udalak bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta

barne kontrola hobetzeko hartu beharko lituzkeen neurriei buruzko gomendio nagusiak emanen ditugu.

V.1. ALDERDI OROKORRAK

Hona gure gomendioak:

- *Aurrekontuak lege ezarritako epean oneste.*

- *Aurrekontuan inbertsioetarako jasotzen diren zenbatekoak kudeaketa-ahalmen errealetara doitu eta hurbiltzea, kreditu-gerakinetako saldo handiak hurrengo ekitaldietako aurrekontuetara ez gehitzearren.*

- *Derrigorrezko diru-bilketako kontuak diruzaintzako egoera-orrietan eta egoera-balantzean sartzea.*

- *Udalak eman beharreko dirulaguntzen oinarrietan ezarritako baldintzak zorrotz betetzea.*

V.2. ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA

Atal honetan xehakaturik azalduko ditugu, alde batetik, ondasun arruntak erosteari eta zerbitzuak emateari buruzko alderdiak eta, bestetik, inbertsioak.

V.2.1. Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan

Espedienteen lagin hau egiaztatu dugu:

Aztertutako laginetik ondorioztatzen da hobetu beharreko honako puntu hauek daudela:

	Kontratu-mota	Esleipena	Esleipenaren zenbatekoa
Gizarte-etxeek 2006an eta 2007an egindako jarduera soziokulturalak	Laguntza	Lehiaketa irekia	111.716,00
Tuterako kale-argiteria mantentzea eta kontserbatzea (3 urte)	Laguntza	Lehiaketa irekia	446.011,20
Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren idazketa.	Laguntza	Lehiaketa irekia	405.000,08
Zerbitzu hauek: laneko arriskuen prebentzioa, azterketa medikoa, txertoak eta emakumezko langileen azterketa ginekologikoa	Laguntza	Lehiaketa irekia	151.719,04
2007rako landare-horniketa	Hornidura	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua.	49.806,19
2006ko, 2007ko eta 2008ko Eguberrietarako argi-apaingarriak alokatzea, erosteko aukerarik gabe	Hornidura	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua.	51.309,30
Tuterako Udalak emakumeari laguntza osoa emateko duen zentroaren zerbitzuen kudeaketa, 4 urterako	Lagapena	Lehiaketa irekia	961.616,00

• Aztertutako espedienteetako batzuek epeak gainditu dituzte, fidantzak ezartzeko eta kontratuak formalizatzeko orduan.

Ondorioz, Udalak, oro har, kontratazio-arautegia bete egiten du, baina aipatu lege-alderdiak bete egin behar ditu eta, batez ere, epeen kontrola hobetu.

Gainera, arlo honetako kontu-sail nagusietako gastuen lagin batean, egiaztatu dugu zeinek bere

faktura duela, eta behar bezala kontabilizatuta daudela.

V.2.2. Inbertsioak

Espedienteen lagin hau egiaztatu dugu:

	Kontratu-mota	Esleipena	Esleipenaren zenbatekoa
Lourdes Ikastetxea zenaren eraberritze-lanak, gizarte-etxe bihurtzeko	Obrak	Enkante irekia	942.028,00
Lurzoru urbanizagarriko 4. unitate integratuko I. sektoreari atxikitako bide-sistema orokor berriak urbanizatzeko obrak. Queiles sektorea	Obrak	Lehiaketa irekia	3.701.007,00
Garai bateko txanpinoi-hazitegian, Alfaroko errepidean, parke berria urbanizatzeko proiektuaren obrak	Obrak	Lehiaketa irekia	1.476.671,75
0-3 urteko haurrentzako Santa Ana zentroaren ekipamendua hornitzea eta instalatzea	Hornidura	Lehiaketa irekia	140.550,76

Aزتتutako laginetik ondorioztatzen da hobetu beharreko honako puntu hauek daudela:

• 2006ko ekitaldian ez da aldaketarik izan "Mejanako mendebaldeko bidea zolatzeko lanak" espedientearen egoeran; ez dago behin-behineko harrera-aktarik eta ez da batere gasturik kontabilizatu obra hori dela-eta; izan ere, ekonomia-alorrean ez da sartu kontzeptu horri dagokion inolako fakturarik.

• Aztertutako obra batzuen amaierak kontratuan ezarritako betetze-epea gainditu du, eta espe-

dientean ez dago inolako justifikazio formalik pleguan jasotako zigorrak ez aplikatzeko.

• Gainera, espediente batzuetan atzerapenak ikusten dira, fidantzak eratzeko eta kontratuak formalizatzeko orduan.

Ondorioz, Udalak, oro har, kontratazio-arautegia bete egiten du, baina halere aurreko lerrokadetan aipatutako legearen alderdiak bete behar ditu eta, batez ere, obren epeak betetzen diren hobeki kontrolatu behar du.

V.3. GORABEHERAK

2007ko martxoan 56 auzi ebatzi gabe zeuden, jurisdikzio-istantzia ezberdinetan, eta auzi horietako batzuk ezin dira ekonomikoki zenbatetsi prozesu-une honetan.

Bada oroitidazkian aipatuta dagoen erabaki gabeko auzi bat, hiri-lurraren kontribuzioari dagokiona; Nafarroako Administrazio Auzitegiak baliogabetuak zituen kontribuzio horretako 2005eko lehen seihilekoko likidazioak.

2008ko apirilean, Tuterako Udaleko Gobernu Batzardeak Nafarroako Administrazio Auzitegiaren 2414/06 Ebazpena betetzea erabaki zuen; horren ondorioa izan zen 2005eko lehen seihilekoko hiri-lurraren kontribuzioari lotutako diru-sarrerak itzultzea eta berandutzagatiko interesak ordaintzea. Itzulketak 2008ko lehen seihilekoko ordainagirien igorpenaren bidez eginen dira, eta zenbatekoa, guztira, 1,4 milioi euro ingurukoa da.

V.4. HIRIGINTZA

2006ko ekitaldian, Hiri Antolamendurako Plan Orokorren berrikuspena esleitu da, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legean ezarritakoaren arabera.

Udalak ez du hirigintzako hitzarmenen erregistrorik, ez eta Udalaren lurzoru-ondarearen inbentario espezifikorik ere Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legea betetzeko, baina ikusi dugu Udalaren lurzoru-ondaretik datozen eraginpeko sarreren segimendua egiten dela.

Hona gure gomendioak:

- *Hirigintza-hitzarmenen erregistroa sortzea, indarrean dagoen legeriak eskatzen duen dokumentazioa duela.*

- *Udalaren lurzoru-ondarea Udalaren gaineko ondasunetatik bereizita eratzea eta kudeatzea, eta kontuan hartzea Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen helburuei lotuta dagoela.*

V.5. ERAKUNDE AUTONOMOAK

V.5.1 Uren Batzarra

2006an Uren Batzarreko idazkariarekin zegoen zerbitzu-errentamendua aldatu egin zen 2007. urtean.

Uren Batzarreko Gobernu Batzardeak, 2007ko maiatzaren 24an egindako bileran, Udaleko idazkariak edo ahala eman zaion funtzionarioak Uren Batzarreko idazkari-funtzioak beteko dituela erabaki zuen.

Bestalde, egindako berrikuspenetik, ondoko gomendioak ematen ditugu:

- *Inbertsioak tramitatu eta egiteko epeen gaineko kontrol zehatza egitea.*

- *Prozedurak ezarri behar dira, kreditu-aldaketen izapidetzea, bai eta, halakorik balego, kasuko argitalpenak ere, likidazioaren ekitaldiko abenduaren 31 baino lehen buka daitezten.*

V.5.2 Castel-Ruiz Kulturgunea

Horra gure gomendioa, egin dugun berrikuspenean oinarritua:

- *Prozedurak ezarri behar dira, kreditu aldaketen izapidetzea, eta halakorik balego kasuko argitalpenak ere, likidazioaren ekitaldiko abenduaren 31 baino lehen buka daitezten.*

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2008ko uztailaren 16an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

Lizarrako Udalarri buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Lizarrako Udalarri buruz egindako fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Lizarrako Udalarri buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (12. or.).
- II. Helburua (13. or.).
- III. Norainokoa (13. or.).
- IV. Iritzia (13. or.).
 - IV.1. 2006ko ekitaldiko kontu orokorra (14. or.).
 - IV.2. Legezkotasuna (14. or.).
 - IV.3. Aurrekontuaren betetzea eta finantza-egoera bateratua, 2006ko abenduaren 31n (14. or.).

IV.4. Aurreko txostenetan Comptos Ganberak emandako gomendioen betetzea (14. or.).

V. Iruzkina, ondorioak eta gomendioak (15. or.).

Eranskina: 2006. urteko kontu orokorrari buruzko oroitidazkia

(Oharra: aipaturiko eranskinak foru parlamentarien eskura daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorrerako bulegoetan eta ondoko web helbidean hain zuzen:

www.cfnavarra.es/camara.comptos

I. SARRERA

Comptos Ganberak, bere jarduketa-programari jarraituz, Udalaren eta haren menpeko erakunde autonomoaren ("Julián Romano" Musika Patronatuaren) auditoria egin du, 2006ko ekitaldiari dago-kiona.

Lizarrako Udalak 15,39 km²-ko azalera du eta 13.892 biztanle zituen 2006ko urtarrilaren 1ean. Udalak eta Musika Patronatuak zenbateko hauek zituzten 2006ko abenduaren 31n:

Erakundea	Euroak		
	Betebehar aitortuak	Eskubide aitortuak	Langileak, 2006ko abenduaren 31n
Udala	14.633.666	17.115.907	119
"Julián Romano" Musika Patronatua	328.874	313.621	16
- BATERATZEAREN DOITZEAK	-148.336	-148.336	
Guztizkoa, bateratua	14.814.204	17.281.191	

Jurramendiko Mankomunitatearen barruan da Udala, eta haren bidez eskaintzen ditu uraren horniketa- eta zaborraren bilketa-zerbitzuak. Lizarraldeko Turismo Partzuergoan eta L'Urederra elkartearen ere parte hartzen du.

Lizarrako Udalarari 2006ko ekitaldian aplika zeki-okeen erregimen juridikoa, funtsean, hau izan da:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Araubidea gaurkotzeari buruzko urriaren 29ko 11/2004 Foru Legea.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legea.
- Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bateratua, 251/1993 Foru Dekretuak onetsia.
- Toki Administrazioen Kontratuei buruzko 10/1998 Foru Legea eta kontratu publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea.
- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.
- Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.
- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak, zeinak Nafarroako Toki Administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.
- Lizarrako Udalaren betetze-oinarriak.
- Udalak ordainarazten dituen zergak arautzeko ordenantzak.

Udalak eginiko 2006ko ekitaldiko kontu bateratuen oroitidazkia erantsi diogu txosten honi.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu Lizarrako Udaleko eta haren menpeko erakunde autonomoko langileei.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Lizarrako Udalaren eta haren erakunde autonomoaren 2006ko ekitaldiko kudeaketa ekonomiko eta finantzarioaren auditoria egin dugu.

Lanak helburu du honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

a) 2006ko Kontu Orokorrak fidelki islatzen ote dituen alderdirik behinenetan Udalaren eta erakunde autonomoaren ondarea, egoera ekonomiko eta finantzarioa, aurrekontuaren likidazioa eta 2006ko abenduaren 31n lortuta dauden emaitzak, eta guztiok onartuak diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraituz prestatu ote den, eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

b) Aplikagarri zaion legedia betetzen ote den Lizarrako Udalak eta haren erakunde autonomoak aurrera eramandako jardueran, 2006ko ekitaldian.

d) Lizarrako Udalaren eta haren erakunde autonomoaren 2006ko abenduaren 31ko finantza-egoera.

d) Egin zuen azken fiskalizazio-txostenean, zeina 2005eko ekitaldiari buruzkoa baita, Comptos Ganbera honek eman zituen gomendioak bete diren.

III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak Udalaren eta haren erakunde autonomoaren 2006ko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du, eta, horretan, kontabilitateko egoera-orri hauek daude:

a. Toki entitatearen kontua eta haren erakunde autonomoarena: Aurrekontuaren likidazioa, balantzea, galera eta irabazien kontua, eta eranskinak (diruzaintzako egoera-orria, etorkizuneko gastuak eta dirusarrerara, baloreen mugimendua, zerbitzuen kostuen oroitidazkia).

b. Kontu Orokorrari erantsitakoak: kontu bateratua, zorraren egoera-orria eta esku-hartzeari buruzko txostena.

Lana Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauei jarraituz gauzatu da, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautapropa edo prozedura tekniko guztiak bildu dira.

IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Lizarrako Udalaren eta haren erakunde autonomoaren 2006ko ekitaldiko Kontu Orokorra aztertu dugu. Udalaren ardura da kontuaren prestaketa eta edukia.

Egindako berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau adierazi behar dugu:

IV.1. 2006ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA

Ondasunen inbentarioa 1995ekoa da, eta ez da eguneratu, eta ez ditu jasotzen ondasun eta eskubide guztiak; horregatik, ezinezkoa izan da Udalaren eta erakunde autonomoaren balantzeko ibilgetu osoaren saldoa -50.989.358 eurokoa, 2006ko abenduaren 31n- zentzuzkoa dela egiaztatzea.

Aurrekontuari ez zaio egotzi Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioak parke teknologikoaren eraikuntza finantzatzeko emandako eta, geroago, kobratutako 950.413 euroko dirulaguntza. Diru-sarrerara hori aplikatzeko dauden diru-sarreraren aurrekontuz kanpoko kontzeptuan kontabilizatu zen.

Aurreko salbuespenen ondorioak alde batera utzita, 2006ko ekitaldiko Kontu Orokorrak fidelki jasotzen ditu alderdirik behinenetan entitatearen ondarea eta egoera ekonomiko eta finantzarioa, haren aurrekontuen likidazioa eta, 2006ko abenduaren 31ko datarekin, eragiketen emaitzak. Hala ere, behar bezala interpretatu eta ulertzeko informazio beharrezkoa eta nahikoa du, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta guztiok onartuak diren kontabilitate-printzipio eta -arau publikoei jarraituz.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke 2006an Udalaren eta haren erakunde autonomoaren ("Julián Romano" Musika Patronatuaren) jarduera ekonomiko eta finantzarioa, oro har, legezkontasun-printzipioari jarraituz egin zela.

IV.3. AURREKONTUAREN BETETZEA ETA FINANTZA-EGOERA BATERATUA, 2006ko ABENDUAREN 31n

Aitortutako eskubide bateratuak 17,28 milioi eurorenak dira, eta horietatik ehuneko 33 zergei eta prezio publikoei dagokie, ehuneko 32 2006. urtean hitzartutako zorrari eta ehuneko 29 jasotako transferentzia arruntei. Diru-sarreraren betetze-maila behin betiko aurreikuspenen ehuneko 68koa da; diruzaintzako gerakina ez da jasotzen aurreikuspenen artean.

2006an aitortutako betebeharrak bateratuak 14,81 milioi euro izan ziren; hau da, gastuen behin betiko aurrekontuaren ehuneko 56. Gastu-kapitulua guzti-

en betetzea ehuneko 87-100 bitartekoa da, inbertsioena izan ezik, aurreikusitako zenbatekoaren ehuneko 33 baino ez baita betetzen.

Aitortutako betebeharrak, langileria-gastuak eta inbertsioak dira azpimarragarriak, kontzeptu horietako bakoitzak gastu guztien ehuneko 35 hartzen baitu; era berean, ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketak azpimarratzeko da, gastu osoaren ehuneko 23 baita.

2006ko abenduaren 31n, 1.285.587 euroko aurrezki garbia dago; horrek erran nahi du Udalak eta haren erakunde autonomoak baliabide arruntekin finantzatu dituztela funtzionamendu-gastuak eta zama finantzarioa. Inbertsioak zor itunduaren eta 2006an sortutako aurrezki garbiaren bidez finantzatu dira; horren guztiaren ondorioz, ekitaldia ixtean aurrekontu-emaitza doituak 2.371.121 eurokoa izan da.

Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakin bateratua 2.201.281 eurokoa da; horrenbestez, likidezia dago hurrengo ekitaldian gastuak finantzatzeko.

2006ko abenduaren 31n, zor bizia 7.477.388 eurokoa da, eta Udalarik dagokio zenbateko osoa. Era berean, mailegu bat eta kreditu bat hitzartu ziren 2006. urtean, eta haien zenbatekoa, guztira, 5.472.084 euro izan zen. 2006ko abenduaren 31n, zorpetze-maila diru-sarrerara arrunten ehuneko 2 da; horregatik, Udalak zorpetzeko ahalmena du, ehuneko 14 baita horretarako daukan muga.

IV.4. AURREKO TXOSTENETAN COMPTOS GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZE-MAILA.

Ganbera honek Lizarrako Udalarik eta haren erakunde autonomoari dagokien 2005eko ekitaldirako auditoria-txostenean emandako gomendioei dagokienez, gomendio hauek bete direla ikusi dugu:

Oro har, kontratazio-espeditanteek arautegiak eskatutako dokumentazio osoa dute.

Inbertsio-gastuen eta atxikitako finantzaketaren jarraipen egokia egiten da.

Eratutako poltsa lotesleetan aurrekontu-kreditua egokia eta nahikoa dela kontrolatzen da.

Aurrekontuaren likidazioa legez ezarritako egunean onetsi da.

V. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

V.1 AURREKONTU OROKORRA, AURREKONTU-ALDAKETAK ETA KONTU OROKORRA

2006. urterako aurrekontu orokor bakarra behin betiko onetsi zen urte hartako maiatzean, eta argitaratu uztailean, eta hasierako sarrera- eta gastu-aurreikuspenak 25.024.545 eurorenak izan ziren Udalean, eta 316.783 eurorenak erakunde autonomoan (musika-eskola).

2006ko ekitaldian egindako aurrekontu-aldaketak 1.418.493 eurorenak izan ziren Udalean, eta 25.251 eurorenak erakunde autonomoan.

Kontu Orokorrari buruzko oroitidazkian ez da informaziorik jasotzen kontratazio administratiboari buruz.

Hona gure gomendioak:

	Lanpostuak, guztira	Hutsak	2006ko enplegu-eskaintza publikoa
Udala	95	26	20
Musika Eskola	15	2	

Udalak 2006. urtean onartu zuen funtzionario-entzatzat, langile finkoentzatzat eta 2006-2007 aldirako araubide administratiboan kontratatuentzatzat lortutako akordioa.

Gastu horien lagin bat aztertuta, ondorioztatzen da ordainsariak, oro har, betetako lanposturako erabakitakoak direla, egindako atxikipenak zuzenak direla, eta langileria-gastuak behar bezala kontabilizatuta daudela.

Hala ere, ikusi da funtzionario guztiek jasotako osagarri finkoa ez dagoela zuzen jasota plantilla organikoan; izan ere, hartan soldataren ehuneko 3,5eko osagarria jasotzen da lanpostu guztietarako, baina, mailen arabera, ehuneko egokia beste bat da.

• *Behin betiko onartzea aurrekontu orokorra, kasuan kasuko ekitaldiaren aurreko urteko abenduaren 31 baino lehen.*

• *Kreditu-aldaketen tramitazioa eta, hala bada-gokio, argitalpena ere egitea, aurrekontuaren likidazioari dagokion ekitaldiko abenduaren 31 baino lehen.*

• *Oroitidazkian jasotzea urteko kontuak errazago ulertzeko beharrezko informazio guztia; besteak beste, kontratazio administratiboari buruzko datuak.*

V.2. UDALEKO LANGILERIA-GASTUAK

Udaleko langileria-gastuak 4.875.974 eurorenak dira. 2006an sortutako gastu guztien ehuneko 33 dira, eta ehuneko sei handitu dira 2005. urtearekin alderatuta.

Udalak onetsitako plantilla organikoan musika-eskolako 2006ko lanpostuak jasotzen dira; plantillaren osaera hau da:

Hona gure gomendioak:

• *Lanpostu bakoitzari benetan esleitutako osagarriak jasotzea plantilla organikoan.*

V.3. GASTUAK, UDALAREN ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN

Udalak 2006an erositako ondasun arruntan eta zerbitzuen zenbatekoa 3.328.232 eurokoa da, eta ekitaldi horretan sortutako betebeharrak guztien ehuneko 23. Aurreko urtearekin alderatuta, ehuneko bederatziko gorakada izan dute.

Faktura-lagin bat aztertu da, hala nola 2006. urtean ikastetxe publikoa garbitzeko esleitutako kontratua, ezaugarri hauek dituena:

		Esleipena	Lizitazioaren zenbatekoa	Esleipenaren zenbatekoa
Remontival ikastetxe publikoaren garbiketa	Laguntzarako kontratua	Lehiaketa irekia	130.000	129.543

Aztertutako laginetik, ondorio hau ateratzen da:

Gastuak onetsita eta kontrolatuta daude, fakturatan oinarrituta eta behar bezala kontabilizatuta.

Ikastetxearen garbiketaren kontratazio-espeditentzaren izapidetzea, haren esleipena eta betetzea, oro har, kontratuei buruzko legediaren arabera egin da.

V.4. UDALAREN INBERTSIOAK

Udalak, 2006. urtean, 5.123.710 euro inbertitu ditu. Udalaren gastu guztien ehuneko 35 da. Inbertsioen betetze-maila behin betiko aurrekontuaren ehuneko 33 da, eta horren arrazoi nagusia da aurreikusitako obren betetze-maila txikia izan dela; horixe gertatu da eskola-tailerreko habeartean, AR-3, EU 10.1 urbanizazioan eta bi zubiren zeharbidean, parke teknologikoan eta kirol-gunean.

2006an esleitutako obra-kontratu hauek berrikusi dira:

	Esleitzeko prozedura/era	Lizitazioaren zenbatekoa	Esleipenaren zenbatekoa	Burutze-epea
Puente de la Vía a – Los Llanos zeharbidearen eraberritzea	Irekita eskaintza onenarentzat	1.874.005	1.516.070	4,5 hilabete
Kiroldegia eraberritzea	Irekia, lehiaketa	305.424	305.000	2,5 hilabete
2005-2008 eperako toki azpiegituren planeko obrak.	Irekia, lehiaketa	677.662	677.561	4 hilabete
Foruen plazako argiteria publikoa berritzea	Negoziatuta, eskaintza onenarentzat	180.225	180.189	58 egun

Toki azpiegituren planean jasotako obrak hauek dira: kaleetan zoladura jartzea, hilerria handitzea eta araztegiara iristeko bidea egokitzea. Obra horiek lizitazio-prozesu bakarrean lizitatu ziren.

Oro har, egiaztatu da kontratuei buruzko legedia bete egiten dela berrikusitako obren kontratazio-espeditentzaren izapidetzean eta haien esleipenean. Halere, akats hauek aurkitu dira:

- Argiteria publikoa berritzeko obra egiteko, esleitutakoa baino epe luzeagoa behar izan zen. Horri dagokionez, ez dago jasota Udalak epearen berariazko luzapena eman duenik, ez eta kontratistari ezarri dizkionik ere gauzatzeko epeak betetzen ez direnerako administrazio-baldintzen agiriari jasota dauden zigorrak.

- Kiroldegia eraberritzeari dagokionez, ez zen sinatu zuinetaren egiaztatze-agiria, eta obraren esleipena epez kanpo argitaratu zen.

Bestalde, 2006. urtean 2005eko 11.912 euroko gastu bat kontabilizatu da, aterpetxeari lotua, Udalbatzak ezohiko kreditua edo kreditu-osagarria aurrez erabaki gabe.

Hona gure gomendioak:

- *Kontratazio administratiboa erregulatzen duen arautegiari egokitzea, eta arauan eskatutako baldintzak eta dokumentazioa betetzea kontratu guztietan.*

- *Obrak gauzatzeko epeak kontrolatzea, haiek betetzen direla bermatzeko, edo, bestela, erabakitako zigorrak aplikatzeko.*

- *Aurreko ekitaldietako gastuak salbuespen gisa aplikatuko dira indarreko aurrekontuan, betiere Udalbatzak ezohiko kreditua edo kreditu-osagarria onartzea erabaki ondoren.*

V.5. UDALAREN AURREKONTUETAKO DIRU-SARRERAK.

2006. urtean, Udalaren diru-sarrerak 17.115.907 euro izan ziren, eta kontzeptu hauei dagozkie:

	Aitortutako eskubideak
Zuzeneko zergak	3.379.976
Zeharkako zergak	1.107.773
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	1.152.259
Transferentzia arruntak	4.971.136
Ondarezko diru-sarrerak	137.503
Inbertsioak besterentzea	6.095
Kapital-transferentziak	889.079
Pasibo finantzarioak	5.472.084

Udalak 2006an aplikatzekoak ziren zergen tasak eta tarifak eguneratzeko behin betiko onespena urte bereko apirilean argitaratu zuen.

Hona gure gomendioak:

Ekitaldi batean aplikatu beharreko zergen tasen eta tarifen behin betiko onespena hura indarrean sartu baino lehen argitaratzea.

V.6. IBILGETUA - INBENTARIOA

Udalak 1995ean egindako eta eguneratu gabeko inbentarioa dauka. 2003. urtetik aurrera, ondasunen zerrenda egin zen, baina zerrenda horretan zerbitzu publikoei atxikitako ondasunak baino ez ziren sartu, haien kostua kalkulatzeko. Ondasunen altak aipatu zerrendan jasotzen dira, eta ez 1995ean egindako inbentarioan. Ez dago loturarik kontabilitatearen eta inbentarioaren artean.

Udal-ondasun guztiak ez daude erregistratuta.

Kontabilitatearen ikuspegitik, tokiko erabilera publikoko ondasunak, behin bukatu ondoren, ez dira aldatzen erabilera orokorrari emandako ondare-kontura.

Hona gure gomendioak:

- *Udal-ondasun eta -eskubide guztien inbentario balioztatu eta eguneratua egitea eta onestea.*
- *Inbentarioaren eta kontabilitate finantzarioaren arteko lotura ezartzea, kontabilitateak inbent-*

riatutako ondasunen osaera eta egoera jaso ditzan.

- *Udal-ondasunak –zerbitzu publikokoak, ondarezkoak eta komunalak– eskrituretan jaso eta erregistratzeko prozesua osatu behar da.*

- *Ibilgetutik kentzea azpiegituretan eta erabilera orokorrerako ondasunetan egindako inbertsioak, behin haiek egin ondoren.*

V.7. UDALAREN KONTU FINANTZARIOAK

Udalaren kontu finantzarioen saldoa, 2006ko abenduaren 31n, 5.487.584 eurokoa da. 2006an, Udalak interesengatik kobratutako diru-sarrerak 32.594 euro izan dira.

Udalak, 2006ko ekitaldian, sei kontu-korrante zeuzkan irekita erakunde finantzarioetan, baina ez zuten inolako mugimendurik, komisio-gastuena izan ezik. Kontu horien saldoa 9.652 eurokoa zen.

Diruzaintzako egoera-orriak ez du jasotzen saldoen berdinkatze-agiria. Horri dagokionez, ikusi dugu 548 euroko aldea dagoela kontabilitate-saldoaren eta banku-erakunde batek 2006ko abenduaren 31n baieztatutako saldoaren artean.

Hona gure gomendioak:

- *Udalak irekitako kontu korronteak, aspalditik mugimendurik izan ez dutenak, erregularizatzea.*
- *Kontu korronteetako saldo-berdinkapenaren egoera-orria eranstea diruzaintzako egoera-orriari.*

V.8 UDALAREN AURREKONTUZ KANPOKO KONTUSAILAK

- Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioak parke teknologiko bat eraikitze emandako 950.413 euroko dirulaguntza bat aurrekontuz kanpoko diru-sarrera gisa kontabilizatu da. 2006. urtean, ekitaldiko aurrekontuaren kontura eta aipatu parkeari lotuta kontabilizatutako gastuaren kopurua 48.891 eurokoa izan zen.

- Aurrekontukoak ez diren hartzekodunen kontuan 23.809 euroko zenbatekoa dago jasota, interes artistikoa duten obren atxikipen gisa; zenbateko horrek zerikusia du 1998. urtean egindako udal-obra baten esleipendunari Udalak inbertsio "artistikoetarako" kobratu zion atxikipenarekin.

Hona gure gomendioak:

- *Udal-obra finantzatzeko jasotako dirulaguntzak aurrekontuan aplikatzea.*

- *1998an interes artistikoko obretarako atxikipen gisa kobratutako funtsak zertan erabili zehaztea.*

V.9. HIRIGINTZA

Hiri Antolamenduko Plan Orokorra 1995eko azaroan onartu zen. 2006ko ekitaldian hasi zen Hiri Antolamenduko Plan Orokorra 35/2002 Foru Legea egokitzeko prozesua, baina 1995eko plangintzako arauaren aldaketaren hasierako onarpena 2007ra arte baino ez zen gauzatu.

2006an, Udalak hiru hirigintza-hitzarmen izapidetu ditu. Hirigintza-kudeaketako hitzarmenetako bat aztertu dugu, eta horren ondorio gisa esan dezakegu haren izapidetzea indarreko hirigintza-legediaren arabera egin dela.

Udalak ez dauka hirigintza-hitzarmenen erregistrorik.

Era berean, 1 banaketa-eremuko Zaldu egikaritze-unitatearen birpartzelatze-proiektua ere hirigintza-legediaren arabera izapidetu da.

Udalak ez du kudeatzen bere lurzoru-ondarea erakundearen gainerako ondasunetatik bereizita. Horri dagokionez, inbentarioan ez da jasotzen ondare hori lotuta edo bereizita dagoen, eta ez da sortu erregistroa.

Hona gure gomendioak:

- *Hirigintza-hitzarmenen erregistroa sortzea.*

- *Udalaren lurzoru-ondarearen erregistroa sortzea, eta ondare hori Udalaren gainerako ondasunetatik bereizita kudeatzea, hala nola ondasunen inbentario orokorrean adieraztea haietako zein diren Udalaren lurzoru-ondarekoak, bai eta horiek legeria urbanistikoaren helburuei lotuta daudela ere.*

V.10. "JULIÁN ROMANO" MUSIKA PATRONATUA IZENEKO ERAKUNDE AUTONOMOA

Musika Patronatuaren 2006ko aurrekontua honela bete da:

DIRU-SARRERAK	Behin betiko aurreikuspenak	Aitortutako eskubideak	Gutzizkoaren gaineko eskubideak ehunekotan
Tasak eta beste diru-sarrera batzuk	127.216	127.503	%41
Transferentzia arruntak	214.010	185.695	%59
Ondarezko diru-sarrerak	808	423	
Guztira	342.034	313.621	

GASTUAK	Behin betiko kredituak	Aitorturiko betebeharrak	Gutzizkoaren gaineko gastuak ehunekotan
Langileria-gastuak	259.347	259.216	%79
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	78.527	68.008	%21
Inbertsioak	4.160	1.650	
Guztira	342.034	328.874	

Erakunde autonomoan egindako fiskalizaziotik ondorio hauek azpimarratzen ditugu:

Udalak ikuskatze-zeregina betetzen du erakunde autonomoan, eta haren gastuak ezagutzea dakarten egintzak fiskalizatzen ditu.

Gastuetan, 2004an onartutako hitzarmenak arautzen ditu musika-eskolako langileenak; langile horiek Udalak onartutako plantillan daude.

Erakunde autonomoak ondasun arrunten eta zerbitzuen kapituluan (bigarrenen) kontabilizatzen du atezain-lanpostuari dagokion gastua; atezaina Udalekoa da, baina musika-eskolan lan egiten du.

Ibilgetuari dagokionez, ez dago musika-eskolako ondasunen inbentario eguneraturik edo balioztaturik; ondasun horietako batzuk Udalak egindako ondasunen zerrendan daude.

Hona gure gomendioak:

- *Udalak barne-kontrolerako funtzioak bete behar ditu musika-eskolan, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legean erabakitako norainokoaren barruan bete ere, eta betiere hiru esparru hauek kontuan hartuta: ikuskatzaitza, kontrol finantzarioa eta eraginkortasunaren kontrola.*

- *Udalaren Musika Eskolaren hitzarmen kolektiboa eguneratzea, haren indarraldia 2004ko abenduaren 31n amaitu baitzen.*

- *Udalari egindako transferentzia arrunt gisa kontabilizatzea kontserbatorioko atezainarengatik Udalaren kontura egindako gastua.*

- *Musika-eskolako ondasunen inbentario baliotatua eta eguneratua egitea.*

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2008ko uztailaren 22an

Lehendakaria, Luis Muñoz Garde

Nafarroako Odol Bankuaren egoera aztertzeke lan-taldea.

OSASUN BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Osasun Batzordeak, 2009ko apirilaren 1ean egindako bileran, erabaki zuen baztertzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko eskaera, Nafarroako Odol Bankuaren egoera aztertzeke lan-taldea sortzekoa.

Iruñean, 2009ko apirilaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Deialdiak, hautaprobaren eta merezimendu-balioespenaren bidez legelarien bi zerrenda osatzekoak, bata Parlamentuko funtzionarioen prestakuntzarako eta bestea aldi baterako administrazio-kontratazioarako.

Epaimahaia aldatzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 6an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

2008ko abenduaren 15ean, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak deialdi bat onetsi zuen, legelarien bi zerrenda, bata Parlamentuko funtzionarioen prestakuntzarako eta bestea aldi baterako administrazio-kontratazioetarako, osatzeko. Deialdi horren arabera, Manuel Pulido Quecedo jauna epaimahai kalifikatzailearen idazkari lanetan aritzeko izendatua izan zen. Pulido jaunaren legezko abstentzioa dela-eta, legelari nagusiak hura ordezkatzeko beharrari buruzko proposamena egin du, eta hori ikusirik, ERABAKI DA:

1. Aipatu deialdiko 5.1 oinarrian aurreikusiriko epaimahai kalifikatzailea aldatzea. Hauexek izanen dira epaimahai kalifikatzaileko kideak:

Idazkaria: Gemma Sánchez Lerma andrea, Comptos Ganberako legelaria.

Ordezkoa: José Luis Ezquerro Royo, Nafarroako Comptos Ganberako legelaria.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako aldizkari Ofizialean argitaratzea, pertsona interesdunei jakinaraztea eta Zerbitzu Orokorretako buruari eta Kontu-hartzaile-tza eta Gai Ekonomikoetarako buruari igortzea.

Iruñean, 2009ko apirilaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda